

## EUSKAL-ERRIKO CHORIYA

(ON ANTONIO ARZÁC, NERE MAISU LAZTANARI)

Euskal-Errian degu  
Arbol bat, Gernikan,  
Zein maite degun asko  
Geronek, benetan;  
Gure fedea dago  
Gordia ostotan,  
Eta ontasun danak  
Azaltzen loretan.

Egun batez zebillen  
Arbola gañean,  
Chori eder pollit bat  
Ostuen tartean  
Zerbait jostatu nairik  
Arbol zabalean,  
Kantari, alaiturik  
Gozamen onean.

¡Zer gauza pozgarriya  
Ura ikusitzen,  
Zergatik du choriyak  
Euskaraz kantatzen!

Euskaldunaizanik,  
Nor ez da poztutzen?  
¿Nork chori euskalduna  
Ez du maitatutzen?

Orain gure choriya  
Zaigu chit isildu;  
Bere kantu guztiyak  
Dirade gelditu;  
Arbol santu artatik  
Osto bat du artu,  
Eta, an goyetara  
Berekiñ igodu.

Uste det joan dala  
Zerura choriya  
Erakustera osto  
Gure jatorriya,  
Askorentzat espillu  
Begiragarriya,  
Non dagon euskaldunen  
Kondaira garbiya.

RAMON INZAGARAY.